

# SEGURTASUNA ZEURE ESKUTIK

**Intzidenterik, iradokizunik edo zalantzarik izanez gero,  
jar zaitezke harremanetan:**

[hdo.seguridadclinica@osakidetza.net](mailto:hdo.seguridadclinica@osakidetza.net)

DONOSTIA OSPITALEA  
**50 URTE**  
AÑOS  
HOSPITAL DONOSTIA

 **Osakidetza**  
Donostia Ospitalea  
Hospital Donostia

 **EUSKO JAURLARITZA**  
GOBIERNO VASCO  
OSASUN ETXAKO KONTUAK  
SAS  
DEPARTAMENTO DE SANIDAD  
Y CONSUMO

## SARRERA

Pazienteen segurtasun-maila handiagotzea osasun-sistemen lehenetsuna da, gaur egun.

Paziente eta profesionalentzako praktika seguruak etengabe bilatzen diren testuinguru berrian, errakuntza askoren erantzule diren identifikazio-arazoak saihestu nahi ditugu.

Orainsu arte, pazienteak identifikatzeko modurik ohikoena gela edo ohe-zenbakia izan dira, baita ere diagnostikoa eta ezaugarri fisiko eta psikologikoak, etab.

Identifikazio kontuekin fidakorregiak izan gara, pazienteak ezagutzeko, jakintzat eman izan baitugu haren artapenez arduratzen diren guzti-guztiei ezagutzen zutela.

Identifikazio-errakuntzak saihesteko, onena pazientearengana egunero-egunero lehenengo aldia balitz bezala hurbiltzea da. Identifikazio-eskumuturrekoa tresna paregabea da errakuntzak gutxiagotzeko, mementoro jakin baitezakegu pazienteak nor den; horretarako eskumuturrekoari begiratu besterik ez dago. Ahalegin txiki horrek saria izango du, pazienteen segurtasuna bermatzea, alegia.

Pertsonalak jakin dezake edozein unetan zein pazienteri ari zaion arreta egiten eta horrek ziurtasuna sortuko dio berari eta segurtasuna pazienteari, segurtasun klinikoaren kultura berri baten partaide eta sustatzaile bihurtzen ari garen konfiantza izango dugula.

### Zertarako jarri identifikazio-eskumuturrekoak?

Pazienteak betiere identifikatuta izateko haien segurtasun klinikoa bermatzu.

### Zein paziente dira identifikatu beharrekoak?

Lehenengo fasean, 2010eko uztailaren 14tik, ingresaturiko paziente oro, programatuak zein urteak.

### Nolakoa da eskumuturrekoa?

- \* Propilenozkoa da, tinta beltz ezabaezinez inprimaturikoa. Itxigailu gotorra dauka eta apurtezina da; beraz, pazienteak ospitalean dagoen bitartean ezin daiteke manipulatu.
- \* Ez dute latexik eta ez dute alergiarik ematen —ez dute metal astunik—; iragazgaitzak, malguak eta iraunkorrak dira; eta alkohola, disolbagarri eta xaboi neutroarekiko erresistenteak.
- \* Eskumuturrekoak ez du mantentze-beharrik eta garbiketa pertsonala ohiko moduan egin dezakezu.
- \* Bi tamaina daude: haurrentzat eta helduentzat.

### Zein informazio darama eskumuturrekoak?

- \* Pazientearen izen-abizenak
- \* Historia klinikoaren zenbakia
- \* Jaiotze-data
- \* Barra-kodea.

### Zein zerbitzutan jarriko zaizkio datuak eskumuturrekoari?

Onarpen-zerbitzuak inprimatuko du identifikazio-eskumuturrekoa, ingresuaren mekanizazioa egiten den unean. Inpresio-guneak ondorengoak izango dira:

- \* Larrialdi orokorretako onarpena
- \* Pediatria eta obstetrizia eta ginekologiako larrialdietako onarpena
- \* Programaturako onarpena (Arantzazu eraikina, Gipuzkoa eraikina eta Ama-haurren eraikina).



### Nola ipini behar da eskumuturrekoa?

Pazientearentzako modu erosoan protesien, bena-bideen eta asistentzian beharrezkoak izango diren gailuen irispidea oztopatu gabe.

Eskumuturrekoa ipini baino lehen baieztatu behar da datuak bat datozela pazientearekin. Errakuntza detektatuz gero, Onarpen Zerbitzuari jakinarazi behar zaio.

Inoiz ez da ipini behar datu okerrik duen eskumuturrekorik. Zalantzarik sortuz gero, Onarpen Zerbitzua arduratuko da datuak zuzendu eta beste eskumuturreko bat egiteaz.

### Eskumuturrekoa ipintzeko jarraibideak

- \* Ertzeko itsasgarria kendu.
- \* Datuak ondo ikusteko moduan ipini idazteko erabiltzen den eskuan.
- \* Itsatsi bi muturrak, eskumuturraren tamainari egokituta.
- \* Pazienteari esan oso garrantzitsua dela ospitalean dagoen bitartean eskumuturrekoa eramatea eta hondatu edo galduz gero eskatu behar duela unitatean berri bat.

### Non ipiniko da eskumuturrekoa?

Ordenu honi jarraituko zaio jartzeko orduan:

- \* Idazteko erabiltzen den eskumuturra
- \* Beste eskumuturra
- \* Eskuin txorkatila.

### Nork jarri behar ditu eskumuturrekoak?

#### Programaturako ingresuak

Onarpen Zerbitzuak programaturako ingresuen kasuan, behin identitatea konprobatu ondoren, Pazienteak identifikatzeko eta Erregistratzeko Prozedurari jarriki.

Onarpen zerbitzutik pasatu gabe ospitaleratzen bada pazienteak (beste ospitaleko trasladoak, ohatutako pazienteak, etab.), eskumuturrekoa ingresuaren dokumentazioarekin batera entregatuko da. Ospitaleratze-unitatera eramaten dutenean, pazientearen erizainak jarriki dio, identitatea konprobatu ondoren.

Erditzeko ospitaleratuak ingresu unean identifikatuko dira eskumuturreko berriekin. Erditu ondoren, gainera, ama-haurren eskumuturrekoa jarriki zaio.

#### Larrialdietako ingresuak

Ospitaleratze urteetan, larrialdietako erizainak jarriki dio eskumuturrekoa pazienteari, solairura bidali baino lehen betiere eta datuak konprobatuta.

Ezin bagara pazienteak nor den jakitera iritsi, paziente ezezagunaren etiketa jarriki zaio —oraingoa— eta zenbaki bat esleituko zaio. Baina, identifikazioa lortutakoan, eskumuturreko hori kendu eta pazienteak dagoen tokian ipini behar zaio identifikazio-eskumuturrekoa, horretarako Onarpen Zerbitzuari etiketak eskatu behar zaizkiola.

### Noiz egin behar zaio kontu eskumuturrekoari?

Pertsonal sanitarioak edozein prozedura egin baino lehen eskumuturrekoa erabiliz, zuzenez, identifikatu behar du pazienteak.

Eskumuturrekorik gabeko pazienterik ikusiz gero, erizain arduradunari esan behar zaio, berak identifikatu eta eskumuturrekoa jarriki dio Onarpen Zerbitzuari eskatu ondoren.

Ebakuntza-gelan kendu behar bada eskumuturrekoa, oso garrantzitsua da albait arinen ipintzea. Ardura hori izango dute ondorengoek:

- \* **Arantzazu eta Ginekologiako ebakuntza-gelak:** erizain zirkulatzaileak, Onarpen Zerbitzura eskumuturra eskatuta.
- \* **Gipuzkoa eraikineko ebakuntza-gelak:** anestesiatxo erizainak edo zirkulatzaileak, ebakuntza-gelako administrazio-gunean eskatuta.
- \* **Pediatriako ebakuntza-gelak:** bizkortzeko erizainak, Onarpen Zerbitzura eskumuturra eskatuta.

### Eskumuturrekoa kentzea

- \* **Senda-agiria jasotzerakoan:** pazienteak ospitaleratuta dagoen bitartean, ez kendu eskumuturrekorik, pazienteak bera arduratuko da, behin etxera joan eta gero, kendu eta txikitzeaz.
- \* **Heriotza-kasuan:** hileta-zerbitzukoak hilotzaren kargu egin artean ez da kenduko.
- \* **Jasanezintasunaren kasuan:** erizaintzako ebolutiboan adieraziko da.
- \* **Pazientearen ukoaren kasuan:** eskumuturrekoa haren segurtasunerako garrantzitsua dela adieraziko zaio eta ukoari eutsiz gero, kendu egingo zaio eta historia klinikoa apuntatuko da intzidentzia.

**Intzidenterik, iradokizunik edo zalantzarik izanez gero, jar zaitezke harremanetan:**

[hdo.seguridadclinica@osakidetza.net](mailto:hdo.seguridadclinica@osakidetza.net)